

Mahai-ingurua



Ezkerretik eskuinera, Ane Muñoz zinemagilea, Harkaitz Cano idazlea eta Aiora Renteria musikaria.

Nola izan sortzaile mundu digitalean

The Buggles taldearen aspaldiko kanta batek zioen, nostalgiaz, bideoak hil zuela irratiko izarra. Noski, orduan ez zen igarri ere egiten ordenagailuek askoz ere gehiago aldatuko zutela musika eta, oro har, kultura ulertzeko modua. Baina zenbat eragiten du teknologiak sortzaileen eguneroko lanean? Gaia mahaian jarri dugu, eta inguruan bildu ditugu Ane Muñoz, Harkaitz Cano eta Aiora Renteria. Hona bakoitzak bere esparrutik zer esan duen.

Gorka Bereziartua

Argazkiak: Dani Blanco

Teknologia berrien eraginez, formatuak aldatuko direla esaten da: nobela azkenetan dela; ber gauza diskoez eta film luzeez. Zer iruditzen?

Ane Muñoz: Gaur egun bizi dugun erritmoa-gatik dela uste dut: orain denak izan behar du laburra, azkarra; harira joan behar da. Jendeak etengabe gauza berriak behar ditu, ume txikiek bezala. Horregatik, zenbat eta formatu luzeagoa...

Harkaitz Cano: Bai, gure ofizioa aldatzen ari da, eta ez gara enteratzen ari. Askotan Interneteko ugaritasun horrek sortzen dit Corte Ingleseko liburu-denda erraldoi batera sartzearen sentazio azpiratzaile bera: inhibitu egiten nau gehiago idazteko. Oso sentimendu sakona eragiten dit. "Izan nadin ekologikoa: zer idatzi

behar dut?". Eta horregatik, bi aldiz pentsatuko dut edozer argitaratu aurretik. Abundantzia horrek esan nahi du oso seguru egon behar dudala idazten dudanarekin. Are gehiago, pauso bat harago: beharbada ez dut idatzi behar. Beharbada hemendik aurrera idazlearen figura bihurtuko da lehen editorearena zena: aukeratu besteena eta kontestu berri bat eman, dagoen horretatik sortu, modu ekologikoago batean. Badaude liburuak horren adibidez: Esteban Peicovichen *Poemas plagados*, adibidez. Tipoak zer egiten du? Hartzen du Buenos Airesen entzundako esaldi bat, ama bati bere umeaz egindako galdera: "¿Qué tiempo tiene?". Eta berak horri izenburua jartzen dio: *Eternidad*. Eta azpian azalpen bat: "Frase que dicen las



madres cuando se encuentran con sus amigas y el niño".

Dagoeneko badagoen testu bati, testuingurua aldatuta, buelta ematen dio. Eta iruditzen zait hainbat idazle bideratu daitezkeela hortik.

A. Muñoz: Baina beti egon beharko dira jatorrizkoak, ez? Edo dagoeneko dena kontatua dago?

H. Cano: Nik ez dut esan nahi nobelarik idatziko ez denik konbentzionalki, baina bai ikusten dut beste idazle tipo bat sortuko dela. Zinean ere egiten da hori, ezta? Besteen gauzak hartu eta...

A. Muñoz: Bai. Orain arte araua zen ehuneko ez-dakit-zenbat baino ezin zela artxibokoa erabili, baina Youtuben sartzan zara eta dena dago beste filmetatik aterata. Eta hor, gainera, nola ez duzun eskubiderik ordaintzen...

H. Cano: Musikan nola dago samplerren kontua? Arautua dago zenbat lapurtu daitekeen?

Aiora Renteria: Plagioa izateko zortzi konpas dira muga, baina berdin-berdinak izan behar dira. Zuk egin zenezake abesti bat zortzi konpas hartuta, eta azkeneko nota aldatu; eta beste zortzi konpas hartu, eta azkeneko nota aldatu. Eta kito, ez da berdina. Egiteko erak asko dira. Gero musikan, klaro, erregistratzen dena da melodia, letra eta akorde simple batzuk. Baxua ez da hartzen, ezta bateria ere. Orduan, zer gertatzen da? Musikan lau akorde daude. Eta lau akorderekin mundu guztiak egin ditugu abestiak. Paper batean abesti asko izango dira antzekoak. Zerk aldatzen du? Baxu batek, bateria batek... Eta hori ez da kontuan izaten.

H. Cano: Kuriositatea neukan, literaturan teorizatzean asko hitz egiten baita "samplerraren literatura"-ri buruz. Musikako terminoak erabiltzen dira idazten den literatura "berri" horri buruz hitz egiteko.

A. Renteria: Gero, diferentea da egin duenari

"Ez dut esan nahi nobelarik idatziko ez denik konbentzionalki, baina bai ikusten dut beste idazle tipo bat sortuko dela"

HARKAITZ CANO

baimena eskatzen badiozu, zuk diozun bezala, sampler bat sartzeko. Baimenarekin sar zenezake nahi duzuna, zuk azken finean beste bertsio bat egingo duzulako, esaldi batzuk hartuta. Baina horrelako gauzak oso subjektiboak dira, nork entzuten duen-eta... Aizu, baina teknologiaren rolo honekin-eta, liburuek ez dute asko galdu, ezta? Edo bai?

H. Cano: Nik uste liburuak oraindik badaukala fetitxearen kontzepzio oso-oso sustraitua. Oraindik ikusten duzu 20 urteko gazte batek, nahiz eta Interneten bere historia guztia jarri, buruan daukala bere poema liburua paperezkoa izatea. Eta niri kurioa egiten zait hori, ikusten ditudanean hain tipo teknologikoak fetitxe horrekin, sakratua balitz bezala-edo...

A. Renteria: Formatu aldaketarik ere ez da izan. Errazagoa izango da liburuarentzat ere mantentzea, ez? Ze, musikan, formatua pila bat aldatu da; eta igual ohitu egin gara aldaketa horietara, eta jada berdin zaigu iPodean eraman edo dena delakoan. Baina liburu elektronikoa ez diot rolo askorik ikusten, ze horretarako, pantailan irakurtzen dut. Ez dakit, salmentetan-eta igarri da aldaketa?

H. Cano: Oraindik ez, baina ematen du etorkizunera begira... Bueno, inork ez daki, baina 2018rako, esaten dute, gehiago salduko dela digitala ohiko liburua baino.

Alor diferenteetan ari zarete zuetako bakoitza, baina orain denak pasatzen dira ordenagailutik. Ekarriko al du horrek askotan aipatu ohi den diziplinartekotasunik?

A. Muñoz: Joko bezala tentagarria da... baina joko bezala bakarrik. Bideoarekin edozeinek egiten du labor bat asteburu batean, eta badaikit bat baino gehiago erakartzen duela. Musikarekin berdin. Baina idaztea... desberdin ikusten dut. Jarri egin behar zara eta buruan daukazuna bota. Nik uste, jendeari ez diola gehiegi erakartzen. Zaletua izan behar duzu, eta oso diziplinatua.

A. Renteria: Nik denbora askorik ez daukat

bestelako gauzetan ibiltzeko. Idazten dut disko berriren bat egin behar dugunean, ez daukat diziplinarik...

A. Muñoz: Baina bideo klip bat, adibidez, errazago egingo duzu orain, ezta?

A. Renteria: Tira, bai, eta etxean zoratu egiten naizenean egiten ditut argazki-muntaiak. Eta idatzi ere... Idazteko, jartzen naiz telebistaren aurrean –ze ni teleadikta naiz, hori konfesatu behar dut– eta nork edo nork esaldi bat botatzen du. Apuntatu egiten dut. Eta horrela, urte oso batean bildutakoetatik abiatuta idazten dut, baina gainontzean ez. Horretan ados nago zurekin: ez dut uste teknologia berriek inor bultzatuko dutenik idaztera; musikarekin jolastera bai, eta bideoekin saiatzera ere bai; edo diseinuak egiten, kartelak-eta.

H. Cano: Idazleen medioen demokratizazioa aspaldi eman zen [boligrafoa eta papera hartu ditu eskuetan] honekin nahikoa da. Pelikula bat egitea, orain da erraza: orain arte dirua, azpiegitura... behar zenituen.

A. Muñoz: Baina oinarria bera da. Zergatik ez duzu pelikula bat egiten? “Ez daukat gidoirik” esaten dizu jendeak. Ba gidoia egiteko ez duzu ezer behar: eseri eta egon... eta ateral!

H. Cano: Honekin lotuta, erakargarria egiten zait errizomaren teoria...

A. Renteria: Zer da hori?

H. Cano: Errizoma konponente begetal bat da, horizontalki hazten dena, jenjibrea adibidez. Badoaz hazten horizontalki, neurririk gabe, eta beraien egiturako edozein korapilota-tik abiatuta. Ez da zuhaitz bat bezala, sustraie-tatik gorantz hasten den zerbait; sare estruktura da, eta alde batetik usteltzen bada ere, beste batetik hedatzen da. Internetek hori ematen du; adibidez, Bolañoren nobela ikaragarri hauetan ikusten da: zuk esaldi bat idazten duzu, eta adjektibo bat hartzen duzu, hortik tiraka hasi eta 50 orrialde idazten dituzu, istorio bat. Izan beharrean istorio bat hasiera,

“Ez dakit orain, dena artxibategi digitaletan gordetzen ari garen honetan, zer egingo dugun itzalaldi bat-edo gertatzen bada”

ANE MUÑOZ

korapilota eta bukaera dauzkana, desordena ordenatua sortzen da –beti egin izan da, baina orain modu erradikalagoan–: kaotikoagoak, basatiagoak, oihan baten itxurakoak dira liburu horiek. Eta paperezko liburuak izan arren, Interneten eragina antzematen da, hipertestuak bezalakoak direlako. Klik egin, testu bat abandonatu eta beste batera pasatzen zara, ez dago hari nagusi bat, aldatzen doa aldiro. Eta hor bai txertatu daitekeela musika edo irudia. Kontua da, gutxitan ikusi dudala hori praktikan, petatxoa izan gabe.

Aurrerantzean horrelako bideek bestelako garapenik izango dutela uste duzue?

A. Muñoz: Bai, batez ere errazagoa delako. Liburu batean, adibidez, orain ilustratzaile batek edo argazkilarik batek jartzen ditu liburu batean joaten diren irudiak, talde-lana da. Baina aurrerantzean uste dut errazagoa izango dela norberak dena egitea... Eta saltzea ere bai. Ez dakidana

da, orain dena artxibategi digitaletan gordetzen ari garen honetan, zer egingo dugun itzalaldi bat-edo gertatzen bada. Non daude horiek? Ez daude! Badakit papera ere erre daitekeela, baina niri dena airean ikusteak erresetua ematen dit.

A. Renteria: Diruarekin gertatu da hori orain, ez?

A. Muñoz: Horixe.

A. Renteria: Banku batean daukazu dirua, zenbaki bat da, papertxo batean ematen dizutena, baina ez dago. Eta berdin-berdin gertatu liteke. Baina...

A. Muñoz: Bai, egia, zer egingo duzu?

A. Renteria: Ez gara kaos surrealista bat imajinatzen hasiko!

H. Cano: Badago kontakizun bat, ez naiz gogoratzen norena, kontaktzen duena AEBetako estatu batean bunker bat dagoela, Google-en ordenagailu zentralekin. Eta egia omen da



IBARRAKO
U D A L A

San Bartolome plaza 2 • 20400 IBARRA • Tel.:943 67 38 27 • www.ibarrakoudala.net

Zorionak Argia eta jarraitu beste 90 urtez

hori, gainera. Zientzia-fikziozko istorioa da: atentatu bat egin dute hor, eta bost urte pasa dira geroztik. Ariketa polita da, zer eta nola berreskuratu den planteatzen baitu. Edo jendeak gogoratu behar du, edo liburuetatik erreskatatu behar da, baztertuta geneuzkan entziklopedia horietara itzuli behar da...

Hartzaileaz ere galdetu nahi nizuen: aipatu ditugun kontu hauengatik, zuen lana jasoko duen pertsona asko aldatu da azken urteetan. Zuen lan egiteko modua ere diferente bihurtu da?

A. Muñoz: Helburua azkenean ikusleengana iristea da, eta beraz, ez baduzu bitxo arraro bat izan nahi egokitu egiten zara. Dagoen eskariarentzat ahalik eta eskaintza egokituen egiten duzu. Baina horrekin ez dut esan nahi kontsumo errazeko pelikulek erakartzen nautenik. Esan nahi dut, hartzailea nolakoa den ezagututa, igual sor daitezkeela ideia berriak. "Momentu honetan hau interesgarria da" esan dezakezu, eta horretaz baliatu. Guk azken finean, erakusteko egiten dugu lan, ez armairu batean sartzeko. Sortzaile zaren momentutik, beti daukazu hori: hartzaile gisa hartuko zenukeena eskaini nahi duzu.

A. Renteria: Musikan orain mundu osoa da hartzailea. Guk beti egin izan dugu irteten zai-guna, ez dugu planteatu nori gustatuko zaion, eta orain askoz errazagoa da guretzat, ze, askoz aukera gehiago dauzkagu jende gehiagori gustatzeko. Hemengo hamabosti gustatuko zaie, Txinako beste hamabosti... Ez zara ibili behar zer eskaini behar duzun pentsatzen. Ateratzen zaidana eskainiko dut, eta mundua daukat entzuteko. Lehen zailagoa zen, ze, pentsa, Euskal Herria txikia da; eta ez zinen hemendik irtengo. Orduan, jende askok, nire ustez, planteatzen zuen hemengo gustuetara egokitzea. Alde horretatik, orain musikan bakoitzak nahi duena egin dezake. Adibidez, Madrilen badago talde bat Grabba Grabba

"Orain ez zara ibili behar zer eskaini behar duzun pentsatzen. Ateratzen zaidana eskainiko dut, eta mundua daukat entzuteko"

AIORA RENTERIA

Tape izena duena. Bi tipo dira, zoratuta daude, arraro jantzita ateratzen dira... Ba horiek hemen ez dira oso ezagunak, baina New Yorken fan pila bat dituzte, Interneti esker. Eta eurek nahi dutena egiten dute. Horregatik diot, musikan gozamen hutsa dela. Orain, dirua ateratzeko, ba... ez.

Konpetentzia ere hazi da baina; mundu guztiak egiten duena denen esku egonda, askoz ere lehiakide gehiago daukazue.

A. Renteria: Baina hori da zure lana: MySpacea hartu eta honen, haren eta bestearen lagun egin. Zuk egiten duzu zure promozioa. Eta nola ez-dakit-noren laguna zaren, horren lagun bat zueganaino heltzen da, kasualitatez. Konpetentzia beti egon da, eta horrek traumatizatu egiten bazaitu... akabo! Argi eduki behar duzu beti egongo dela pertsona bat zuk egiten duzun hori askoz hobeto egiten duena.

A. Muñoz: Hori da, eta lehen esan duzun bezala: nik egiten dudana lehen lau pertsonari gustatzen bazitzaie, orain gehiagori gustatzeko aukera dago.

H. Cano: Bai: "Munduko jende arraroa, elkar gaitzen". [Barre egin dugu] Nik ez diot utziko *freaky* bat izateari; *freaky* gehiago ezagutuko ditut. Eta horretarako, teknologia berrien ahalmena ikaragarria da. Gero, beste gauza bat hartzailearen ideia da. Orain, askotan, hartzailea autore ere bada. Horizontaltasun hori ematen da, eta horrek zenbait autore urduri jartzen ditu. Hor beti sartzen da asunto hori: "Ni profesionala naiz" esango dute batzuek. "Idazten dut eta ordaindu egiten didate". Baina gero ikusten duzu Interneten tipo bat, idazten duena gaueko zortzietatik bederatzietara, etxera nekatuta etorri ondoren eta esaten duzu: "Joder, ze ona den kabroia; mila buelta ematen dizkit". Eta hor, beharbada krisian sartzen zara... Zein da horren eragina? Ba, izan daiteke seko depri-



LEGAZPIko
EUSKARA ZERBITZUA

Euskal Herria Enparantza · 20230 LEGAZPI · Tel.: 943 73 70 30 · www.legazpi.net

Zorionak eta urte askotarako, segi horrela

mitzea; edo izan daiteke pentsatzea hobeto idatzi behar duzula. Eta horrek narama berriro nire obsesiora: ekologia. Nik liburu honetan jarriko dudana nire gorputzeko partikula bakoitzarekin defenditze-ko prest nago, eta bestela isildu egingo naiz. Ez dakidana da, hori den beti funtzionatzen duen logika bat. Autorearen krisiaz ere hitz egiten da, batzuek autorearen abolizioaz hitz egiten dute...

Zineman adibidez, niri pena ematen dit jendea ohitzea filmak ikusten zigilu baten tamainako pantaila batean. Zinema areto batean ikustea ez da gauza bera, eta niretzat hori kristoren aldaketa da. Areto batean ni naiz menperatua, agintzen duena zinea da; eta aldiz, etxean ikusten diren pelikula guztietan, izan telebistan edo, are gehiago, ordenagailuan, nik menperatzen dut pelikula. Nahi baduzu, sadikoa ere izan daiteke. Hanekeren pelikula batean zurekin sadismo ariketa izugarria egiten du. Baina etxean funtzionatzen du horrek? Nire ustez, inola ere ez.

A. Muñoz: Erdia, igual. Arrazoi duzu, ez da gauza bera. Baina orain, alde horretatik, badi-rudi proiektoreak saltzen hasi direla. Hasieran esaten zuten espazio handia behar zenuela etxean horrelako bat jartzeko, baina keba: orain ateratzen ari dira batzuk metro batera jarrita ere pantaila nahiko handia hartzeko modukoak. Nik uste, benetan zaletu direnek hortik joko dutela. Jendea ez dago prest areto-etara joateko, nahi eta nahi ez hor proiektatzen dutena ikusteko, baina bai filma lortu eta etxean ondo ikusteko. Ze, zigiluaren tamainako pantaila horrek... ez luke legala izan behar!

Aldaketa honen guztiaren erdian, nola ikusten duzue euskaraz lan egitea?



Aiora Renteriaren esanetan musikarientzat oso momentu ona da gaur egungoa, teknologia berriak erabiliz nazioartera zabaltzeko. Horrekin dirua irabaztea, ordea, beste kontu bat da.

A. Renteria: Ba nik, berarentzat [Harkaitz Cano] nahiko txarto ikusten dut. Baina musika guk beti entzun izan dugu ingelesez, askotan erdia ere ulertu gabe, eta gustatu egiten zaizu zer edo zer, eta beste gauza batzuk ez, baina ez hizkuntzagatik. Euskararekin traumarik handiena guk geuk daukagu, eta Espainiako Estatuan gaude, eta hemendik irtetea kostatu egiten da. Baina saltoa eginda askoz errazagoa da, inork ez du planteatzen zein hizkuntzatan kantatzen

duzun. Literaturan ba... jendeak jakin egin behar du ulertzeko. Eta zineman ere, azpitu-tuak eduki behar ditu, baina itzuli egin behar da, eta lan gehiago da.

A. Muñoz: Bai, baina era berean, Eskozian edo Australian bizi den euskaldun batek askoz errazago lor ditzake euskal kantak edo liburuak. Badakit ez dagoela euskaldun asko hortik, baina egon badaude. Eta aukera hor dago, lehen baino askoz errazago.

H. Cano: Nik ez dut diferentzia handirik ikusten euskaraz edo beste hizkuntza batean lan egitearen artean. Hiztun gutxi edo merkatu mugatua izanda ere, teknologia berriekin ematen du *tabula rasa* egiten dela denen artean. Jakina, ingelesa eta txinera izango dira inperioaren hizkuntzak hurrengo urteetan; baina uste dut kalte egin digula euskara gauza preziatu eta iragan misteriotsuko zerbait bezala aurkezte horrek. Nozio erromantiko hori gehiegi explotatu dugu eta azkenean gure kalterako izan den susmoa daukat. Euskaraz idaztea da, bariante txiki batzuekin, beste edozein hizkuntzetan lan egitea bezala. Egia da matematikek ez dutela engainatzen, baina... n

www.argia.com

helbidean bertsiu luzea eta diaporama.

Yorick Liburudendan edo www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

Artesblai

El actor creativo. La actriz creativa
Jesús Jara
Alfredo Mantovani

El autor y su sombra
Alfonso Sastre

El actor y su sombra. El rescón del sé

Juegos para un taller de teatro
Alfredo Mantovani
Rosa Inés Morales

El arte del actor en el siglo XXI
Borja Ruiz

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com